

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 12an hartutako erabakiaren laburpena: Euskararen Erabilera Planaren dirulaguntza, haur eta gazte literaturaren alorrean euskarara egindako itzulpenik hoberenak, 2020ko lege gordailua dutenak, saritzeko Vitoria-Gasteiz sarietarako deialdia

BDNS (Identif.): 554993

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/554993>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Haur eta gazte literaturaren alorreko lanen itzultzaileak, edozein hizkuntzatatik euskarara egindako itzulpen lanekin (2020 urteko lege gordailua dutenak). 2021eko deialdi honetara ezingo dira sail bereko lehiaketara aurkeztu 2019 edo 2020an sail horretan sarituak izan ziren itzultzaileak. Ez da onartuko enpresek egindako itzulpen-lanik.

Bigarrena. Helburua

2020 urteko lege gordailua izan eta haur eta gazte literaturaren alorrean euskaraz argitaratutako itzulpenik hoberenak saritzeko emango diren Vitoria-Gasteiz Sariak. Euskarara egindako itzulpenik hobereenen egileen lana saritu nahi da, literatura generoa edozein izanda ere.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 12an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 18.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

30 egun natural, laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 12an

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO